

Formation aux politiques bilingues publiques.

Partenariats entre l'Office public de la langue basque et les Collectivités

*Jean-Claude IRIART, Directeur
de l'Office public de la langue basque.*

Réseau des techniciens de la langue

Afin de faire sorte que la politique publique en faveur de la langue basque puisse aussi être impulsée et mise en œuvre à l'échelle des bassins de vie, l'Office Public de la Langue Basque (OPLB) a proposé aux collectivités qui le souhaitent (Communauté de communes ou grandes communes) de s'engager par convention dans une démarche visant deux objectifs majeurs :

- Promouvoir l'usage du basque dans la vie municipale (accueil du public, documents de communication, signalétique, délibérations...)
- Relayer ou initier à l'échelle du territoire communal ou intercommunal des actions de promotions de la langue basque en lien avec les axes de travail et les orientations définis dans le cadre du Projet de Politique Linguistique.

Afin de permettre aux collectivités d'assurer la fonction d'animation nécessaire à la réalisation de ce double objectif, les conventions de partenariat signées entre l'OPLB et la collectivité prévoient le recrutement d'un « technicien de la langue », et la mise en place de Comités de Pilotage OPLB/Collectivités fixant les orientations et assurant le suivi des activités développées par le technicien.

Sur cette base, six conventions ont déjà été établies et les modalités d'organisation à ce jour sont résumées dans le tableau ci-dessous :

- Communauté de Communes Sud Pays Basque, convention le 20 juin 2006, commission langue basque (10 délégués), technicienne de la langue recrutée le 2 octobre 2006 à temps complet.
- Communauté de Communes Sole Xiberoa, convention le 19 janvier 2007, commission langue basque (6 délégués), technicienne de la langue recrutée le 1 novembre 2006 à temps complet.
- Communauté de Communes Errobi, convention le 7 mars 2007, comité de 5 élus, technicien de la langue recruté le 1^{er} février 2007 à temps complet.
- Communauté de Communes Garazi/Baigorri : convention le 14 mars 2007,
Communauté de Communes Iholdy/Oztibarre : comité de 8 élus,
Communauté de Communes Amikuze : technicienne temps complet.
- Ville de Bayonne, convention le 21 décembre 2006, comité de 4 élus, salarié de la ville affecté à la mission langue basque à temps complet.
- Ville de Biarritz, convention le 16 juillet 2007, comité à définir, salarié de la ville affecté à la mission langue basque à mi-temps.

A ce dispositif, il convient d'associer la convention signée avec le Conseil Général, dont un récent Comité de Pilotage vient de préciser les mesures envisagées par le Département dans le domaine de la signalétique routière, de la signalétique des sites et bâtiments départementaux, de la formation du personnel, de la communication départementale et de l'accueil dans les services départementaux.

Au démarrage, les efforts des techniciens ont porté prioritairement sur la promotion de l'utilisation du basque dans la vie municipale. Ils assurent dans le même temps les travaux de traduction générés par un usage plus important de la langue.

Cofinancements des actions de promotion de la langue

Parallèlement, les différents Comité de Pilotage ont également exprimé le souhait de développer des activités concrètes autour de la langue basque, en référence aux priorités indiquées par le Projet de Politique Linguistique. La Communauté de Communes Sud Pays Basque et la Communauté de Communes d'Errobi ont d'ores et déjà engagé ou défini les premières actions qu'elles souhaiteraient mener dans les mois qui viennent et sollicitent un cofinancement de l'OPLB dans le cadre établi par la convention.

- La Communauté de Communes Sud Pays Basque souhaite éditer et diffuser un catalogue pour enfants (0 à 16 ans) qui répertorie des livres, disques, jeux... et invite dans le même temps les libraires et distributeurs potentiels situés sur le périmètre de la Communauté de Communes à diffuser le matériel proposé dans ce catalogue.
- La Communauté de Communes Sud Pays Basque envisage également de mener à l'échelle de son territoire une campagne de promotion de l'enseignement du basque et en basque (plaquette d'information, conférence publique ...) et d'enrichir son programme d'animation culturelle par des spectacles supplémentaires en langue basque pour les jeunes publics
- La Communauté de communes Errobi met en place pour la fin de l'année 2007 une animation pour les écoles de son périmètre autour du thème Olentzero (exposition, contes, initiation au mode de gestion forestière avec l'intervention d'un charbonnier...)

Formation linguistique des agents des collectivités

Par ailleurs, les demandes exprimées portent aussi sur la formation des agents des collectivités, à l'apprentissage ou au perfectionnement de la langue basque.

Des collectivités ont déjà pris depuis 4 ans plusieurs initiatives en la matière :

- ➔ En 2003/04, 15 agents étaient en formation répartis en 2 groupes (deux communes concernées : Ascain (7), Biarritz (5) et Ixassou (3))
- ➔ En 2004/05, 38 agents étaient en formation répartis en 7 groupes (5 communes concernées : Sare (11), St Pée sur Nivelle (5), Ascain (5), Hendaye (9), Biarritz (5) et Ixassou (3) + 80 agents du Conseil Général → Soit un total de 118 agents
- ➔ En 2005/06, 42 agents étaient en formation répartis en 9 groupes (6 communes concernées : Sare (11), St Pée sur Nivelle (4), Ascain (5), Hendaye

(5), Ustaritz (4), Biarritz (10) et Ixassou (3) + 73 agents du Conseil Général → Soit un total de 115 agents

- ↳ En 2006/07, 43 agents étaient en formation répartis en 10 groupes (6 communes concernées : Sare (2), St Pée sur Nivelle (4), Ascain (3), Hendaye (15), Ustaritz (9), Biarritz (9), et Ixassou (3) + 50 agents du Conseil Général → Soit un total de 93 agents

Pour l'ensemble des communes concernées, la formation est dispensée dans le cadre du temps de travail, à raison de 3 à 4 heures par semaine, pour un volume horaire annuel variant de 136h à 240h (dont des stages intensifs d'une semaine, 2 à 4 fois par an) selon les agents. Dans tous les cas de figure, la formation a été dispensée par l'association AEK, pour des niveaux allant de l'initiation au palier 6-7 (le 8^{ème} niveau étant le dernier dispensé par AEK).

Les formations dispensées par le Conseil Général sont en partie dispensées par AEK (1/3) et en partie par un enseignant salarié du Conseil Général (2/3). Les temps de formation sont comptabilisés pour moitié dans le cadre du temps de travail (sauf les 3 à 4 stages annuels organisés sur un week-end complet, hors temps de travail).

Sur les agents des communes qui ont à ce jour suivi une formation une douzaine ont à ce jour effectué un cycle complet de formation et ont atteint le niveau fixé au départ, sur la base d'un diagnostic initial et de la fonction occupée par l'agent. L'ensemble des coûts ont été pris en charge par les collectivités et les agents n'ont pas fait l'objet de remplacement pendant leur temps de formation.

Le coût moyen de formation pour un agent se situe dans une fourchette de 11 EUR à 15 EUR/h suivant le nombre de participants. Certains groupes homogènes peuvent faire l'objet d'une facturation forfaitaire de 55 EUR de l'heure.

Pour l'année 2007/2008, les Communauté de Communes d'Errobi et de Sud Pays Basque ont déjà défini le plan de formation souhaitable

- 15 agents concernés à la Communauté de Communes Sud Pays Basque (salariés de la Communauté de Communes)
- 19 agents concernés à la Communauté de Communes Errobi (7 communes concernées pour le secteur)

Les communes de Bayonne et de Biarritz ont procédé récemment à une consultation auprès de leurs salariés et sont en train de définir les priorités et les modalités du plan de formation à mettre en place. Par ailleurs une vingtaine d'agents issus des communes de Sare, Ascain, Hendaye, St Pée sur Nivelle et Macaye poursuivent ou démarrent leur formation ainsi que 45 agents du Conseil Général.

Soit une centaine d'agents au total pour 2007/2008 auxquels viendront se rajouter en cours d'année les salariés des villes de Bayonne et de Biarritz.

La formation des salariés des collectivités constitue sans nul doute dès à présent, un enjeu important pour le développement de l'usage du basque dans la vie municipale.

Ces formations ne sont pas à ce jour éligibles aux financements du Centre National de la Fonction Publique Territoriale (CNFPT).

A l'appui de ces différents éléments, il est décidé :

- De cofinancer les opérations d'animation proposées par les Communautés de Communes d'Errobi et de Sud Pays-Basque (maximum 11.800 EUR).
- De cofinancer les opérations de formations des salariés des collectivités publiques et affirmer par la même la volonté d'accompagner les efforts des collectivités dans ce domaine stratégique, pour la mise en œuvre d'une politique publique en faveur de la langue basque (maximum 21 931 EUR).
- De solliciter à l'appui de ces initiatives, un contact officiel avec le CNFPT afin d'apprécier les possibilités d'intégrer à l'avenir les formations à la langue basque des agents publics territoriaux dans le cadre des dispositifs de droit commun.

Politika elebidun publikoei buruzko formakuntza

Euskararen erakunde publikoa eta tokiko erakundeen arteko partaidetzak

Jean-Claude IRIART, Euskararen erakunde publikoaren zuzendaria.

Hizkuntza teknikarien sarea

Euskararen aldeko hizkuntza politika publikoa herrien mailan bultzatua eta bideratua izan dadin, Euskararen Erakunde Publikoak (EEP), xede hori ukanen luketen tokiko erakundeeri bi helburu nagusi bete nahi dituen hitzarmena eskaini die :

- Herriko bizian euskararen erabilpenaren bultzatzea (publikoaren harrera, komunikazio dokumentuak, seinaleetika, erabakiak ...)
- Herri edo Herri Elkargo mailan, euskararen sustapenerako ekimenen abiatze edo segitzea Hizkuntza Politika Proiektuak finkatu dituen lan ardatzen arabera.

Erakundeak, helburu bikoitz horren lortzeko, beharrezkoa den animazio lanaren segurtatzen laguntzeko, EEP eta erakundearen arteko hitzarmenak “euskara teknikari” baten hartzea finkatzen du, bai eta EEP eta erakundearen arteko Gidaritza Batzordeen sortzea, orientabideen finkatzeko eta teknikariak garaturiko ekimenen jarraitzeko.

Oinarri horretan, sei hitzarmen izenpetu dira jadanik eta hauen antolakuntza ondoko taulan laburbildua da :

- Hego Euskal Herri Herri Elkargoa, hitzarmena 2006-06-20an, 10-12 Euskara Bazkide, euskara teknikaria 2006-10-02an hartua denbora osoz.
- Xiberoa Herri Elkargoa, hitzarmena 2007-01-19an, 6 Euskara Bazkide, euskara teknikaria 2006-11-01ean hartua denbora erdiz.
- Errobi Herri Elkargoa, hitzarmena 2007-03-07an, 5 hautetsi arduradun, euskara teknikaria 2007-02-01ean hartua denbora osoz.
- Garazi-Baigorri, Iholdy-Oztibarre eta Amikuzeko Herri Elkargoak, hitzarmena 2007-03-14an, 8 hautetsi arduradun, euskara teknikaria 2007-03-05ean hartua denbora osoz.
- Baionako hiria, hitzarmena 2006-12-11an, 4 hautetsi arduradun, herriko langilea euskara teknikari gisa denbora osoz.
- Biarritzeko hiria, hitzarmena 2007-07-16an, (erabakitzeke), herriko langilea euskara teknikari gisa denbora erdiz.

Dispositibo honi, Kontseilu Nagusiarekin izenpetu zen Hitzarmena ere erantsi behar zaio, duela guti iragan den Gidaritza Batzorde batek ere, zehaztu berri dituelarik Departamenduko bide seinaleetika, gune eta eraikinetan, langileen formakuntza mailan eta departamenduko zerbitzuen mailan pentsatu neurriak.

Hastapenean, teknikarien lanak herriko bizian euskararen sustapena eta erabilpena lehenetsi ditu. Aldi berean, hizkuntzaren erabilpen handiago batek dakarren itzulpen lanak segurtatzen dituzte.

Hizkuntzaren sustapenerako ekimenen finantzaketa partekatua

Paraleloki, Gidaritza Batzorde desberdinek, euskararen inguruko ekimen konkretuen garatzeko borondatea adierazi dute, Hizkuntza Politika Proiektuak finkatu dituen lehentasunen haritik. Hego Euskal Herriko eta Errobi Herri Elkargoek ondoko hilabeteetan bideratu nahi lituzketen ekimenak jadanik abiatu edo finkatu dituzte eta EEPri finantzaketa partekatu bat eskatzen diote, hitzarmenak finkatu duenaren baitan.

- Hego Euskal Herri Herri Elkargoak, haurrendako katalogo bat argitaratu eta hedatu nahi du (Otik 16 urterat) liburu, diska eta jokoak biltzen dituena eta aldi berean, Herri Elkargoaren eremuko liburu eta diska saltzaile eta banatzaile izan daitezkeenak, katalogoak proposatzen duen materiala hedatzerat gomitatzen ditu.
- Hego Euskal Herri Herri Elkargoak ere, bere eremuan, euskara eta euskarazko irakaskuntzaren promozio kanpaina bat eraman gogo du (informazio plaketa, mintzaldi...) eta bere kultura animazio egitaraua aberastu gogo du, publiko gaztearentzat euskarazko ikusgarri gehiagoren bidez.
- Errobi Herri Elkargoak, 2007 urte hondarrerako, bere eremuko eskolendako animazioa bat plantan ezartzen ari da, Olentzero gaiaren inguruan (erakusketa, ipuin, oihan kudeaketaren ezagutza ikazkin baten laguntzarekin ...)

Eskariak neurri batetan, egituretako langileen formakuntzari, euskararen ikaspen edo hobekuntzari dagozkie.

Gisa honetako ekimenak hainbat herri abiatuak dituzte azken 4 urteetan :

- 2003/04an, 15 agente formakuntzan ziren 2 taldetan banaturik (hiru herritakoak : Azkaine (7), Biarritze (5) eta Itsasu (3),
- 2004/05an, 38 agente formakuntzan ziren 7 taldetan banaturik (5 herritakoak : Sara (11), Senpere (5), Azkaine (5), Hendaia (9), Biarritze (5) eta Itsasu (3) + Kontseilu Nagusiko 80 agente=> orotarat 118 agente
- 2005/06an, 42 agente formakuntzan ziren 9 taldetan banaturik (6 herritakoak: Sara (11), Senpere (4), Azkaine (5), Hendaia (5), Uztaritze (4), Biarritz (10) eta Itsasu (3) + Kontseilu Nagusiko 73 agente => orotarat 115 agente
- 2006/07an, 43 agente formakuntzan ziren 10 taldetan banaturik (6 herritakoak: Sara (2), Senpere (4), Azkaine (3), Hendaia (15), Uztaritze (9), Biarritze (9) eta Itxasu (3) + Kontseilu Nagusiko 50 agente => orotarat 83 agente.

Hunkituak diren herri guzietan, formakuntzak lan denboran eman dira, 3 edo 4 orenez astero, urteko 136 eta 240 oren arteko kopuru batekin (urtean zehar eginiko 2 eta 4 arteko astebeteko ikastaldi trinkoez gain) agenteen arabera. Kasu guzietan, formakuntza AEK egiturak segurtatu du, hastapenetik, 6/7. mailara arte joanez (8.a izanki, AEKk emaiten duen azken maila).

Kontseilu Nagusian eman formakuntzen parte bat (1/3), AEKk segurtatzen du eta bestea (2/3) Kontseilu Nagusiko langilea den irakasle batek. Formakuntzen denbora erdia lan orenetan kondatua da (salbu urtean iragan ohi diren 3 edo 4 asteburu osoko ikastaldiak, lan denboraz kanpo).

Orain arte formakuntza jarraiki duten herrietako 50 bat agenteetatik 12 batek ziklo osoa bururatu dute eta hastapenean finkatua zuten helburua lortu dute, agenteak beteriko lanean oinarrituriko diagnostiko batetatik abiatua zelarik azken hau. Gastua bere osotasunean tokiko aginteek hartu dute beren gain eta agenteak ez dira beraien formakuntza denboretan ordezkatuak izan.

Agente baten formakuntzaren bataz besteko kostua, oreneko 11 euro eta 15 euroren artean da, parte hartzaile kopuruaren arabera. Hein berdineko taldeak direlarik, AEKk ordainketa orokor gisa fakturatzen ahal ditu 55 euro oreneko.

2007/2008 urtearentzat, Errobi eta Hego Euskal Herriko Herri Elkargoek nahiko luketen formakuntza plana definitua dute jadanik:

- 15 agente Hego Euskal Herriko Herri Elkargoan (Herri Elkargoko langileak).
- 15 agente Errobi Herri Elkargoan (7 herri hunkituak eremu honetan)

Baiona eta Biarritzeko hiriek beren langileen arteko galdetegi bat bururatu dute berrikitan eta martxan ezartzekoa dute ; formakuntza plangintzaren lehentasunak eta modalitateak definitzen ari dira. Bestalde, Sara, Azkaine, Hendaia, Senpere eta Makeako herrietako agente zenbaitzuek beren formakuntza hasten edo segitzen dute eta Kontseilu Nagusiko 45 agentek ere.

Hau da, 2007/2008 urtearentzat ehun bat agente izanen dira, hauei gehitu beharko zaizkielarik urtean zehar juntatuko zaizkiean Baiona eta Biarritzeko langileak.

Tokiko aginteetako langileen formakuntza, dudarik gabe, herrietako bizian euskararen erabilpenaren garapenerako gako garrantzitsu bat da.

Formakuntza hauek gaur egun, ez ditu Centre National de la Fonction Publique Territoriale (CNFPT) egiturak bere finantzaketetan kontutan hartzen.

Elementu hauetan oinarriturik, erabakitzen da:

- Errobi eta Hego Euskal Herriko Herri Elkargoek proposaturiko animazio ekimenen finantzaketa partekatzea (gehienez 11.800 euro)
- Erakunde publikoetako langileen formakuntzaren finantzaketa partekatzea eta bide batez erakunde hauek euskararen aldeko hizkuntza politiko publiko baten alde, eremu estrategiko honetan egiten dituzten indarren laguntzeko borondatea adieraztea. Finantzaketa partekatzea ondoko modalitateen arabera egingen da (gehienez 21.931 euro)
- Ekimen hauen berme, CNFTri harreman ofizial baten eskatzea, etorkizunean tokiko agente publikoen euskarazko formakuntzak zuzenbide arrunteko kuadro batetan kokatzeko aukeren aztertzeke.

